# jokulariak98

**EUSKAL AKTOREEN BATASUNAREN BOLETINA**
**BOLETÍN UNIÓN DE ACTORES VASCOS**
urria 2015 octubre

# OSKARRETARA BIDEAN!






98

urria 2015 octubre
**Azala** Argazkia
Cartel de Loreak




05



12



14



05

# SUMARIO

04 **Loreak filmak Espainia ordezkatuko du Oscar sarietan**

05 **Zinemaldi 2015**
EAB

06 **Dantzerti, la Escuela Superior de Arte Dramático y Danza de Euskadi ya es una realidad**
EAB

10 **Lan akordioa betetzeari buruz**
Gurutze Baztarrika

12 **20 años del taller de Artes Escénicas de Donostia**
Mari Carmen Gil

14 **Develop film market**
Lander Otaola

# jokulariak

EAB

EUSKAL AKTOREEN
BATASUNAREN BERRIPAPERA

DONOSTIA
Portuetxe nº 23 A
4º Planta ofic. 4/08
20.018 Donostia
Tel. 943 31 48 22

BILBAO
Bilbo Eszena
c/ Juan de Gardeazabal 3
(entrada por c/Fica)
BILBAO 48.004
Tel. 944 33 37 86

admon@actoresvascos.com
eabbilbao@actoresvascos.com
www.actoresvascos.com

**Koordinazioa, edizioa**
Belén Cruz
**Maketazio, diseinua**
Iosune Fernández
**Inprimategia**
Antza
**Lege gordailua**
ISSN:

Gogoratu alkizkari hau denona dela eta gustura hartuko genituzkela zure iritsi eta artikuluak.

Recordad que esta revista es de todos y que gustosamente recibiremos tus opiniones y artículos.



# LOREAK FILMAK ESPAINIA ORDEZKATUKO DU OSCAR SARIETAN

Hiru emakumeren istorioa da hau; lore-sorta xume batzuek goitik behera aldatuko dituzten hiru bizimodu. Lore horiek ahaztutzat zituzten sentimenduak azaleratuko dituzte… Baina, azken batean, loreak baino ez dira.
Loreak Garaño-Goenaga tandemak zuzenduriko bigarren filma da. Euren aurreko filmak, 80 egunean, nazioarteko 100 zinemalditan baino gehiagotan parte hartu du, horietatik lau “A” mailakoak (Karlovy Vary International Film Festival, Donostiako Nazioarteko Zinemaldia - Donostia Film Commission Saria eta LGTB Gaietako Film Onenaren Donostia Saria-, Montreal World Film Festival eta Cairoko Nazioarteko Zinemaldia). 30 saritik gora lortu ditu bere ibilbidean eta gaurdaino sari gehien jaso dituen euskarazko filma da.
**http://www.loreakfilm.com**

## SOLO SON FLORES

“Delicadeza, sensibilidad y poesía notables”
**El País** Carlos Boyero

“Magnífica, la sencillez convertida en arte”
**La Razón** Carlos Pumares

“Una gratísima sorpresa”
**La Vanguardia** Pedro Vallín

“Delikatua, iradokitzailea, detailez betea, apartekoa”
**Argia** Gorka Bereziartua

“Cine con mayúsculas, cine que te llega”
**El Diario Vasco** Mikel Gurpegui

“Exquisito pulso narrativo”
**ABC** Oti Rodríguez Marchante

“Suya es la virtud de la emoción”
**El Mundo** Luís Martinez

“Loreak es un prodigio narrativo”
**Gara** Mikel Insausti

“Hunkituta bai, eta liluratuta ere bai, bigarren aldiz patxadaz berrikusi eta aztertzeko gogoz”
**Gaztezulo** Aitor Abaroa

“Exquisito pulso narrativo”
**ABC** Oti Rodríguez Marchante

“Lore berriak. Usain gozoko loreak”
**Berria** Urtzi Urkizu








# ZINEMALDI 2015

En una gala presentada por los actores Josean Bengoetxea e Itziar Ituño, el cine vasco ha llevado a cabo en el teatro Victoria Eugenia su encuentro anual en el marco del Festival Internacional de Cine de Donostia, donde se han entregado el premio Zinemira y el premio al mejor guión vasco de año.
La gala ha acogido el estreno mundial Un Otoño sin Berlin, el primer largometraje de la cineasta zornotzarra, Lara Izagirre.

**ZINEMIRA SARIA 2015**
La maquilladora donostiarra Karmele Soler, ha recibido el premio Zinemira en honor a toda su carrera en la que ha trabajado desde sus comienzos en ETB con los mejores directores del ámbito estatal: Pedro Almodóvar, Julio Medem, Imanol Uribe, Juanma Bajo Ulloa, Daniel Sánchez Arévalo, Pablo Malo… En 2012, ganó un premio Goya por su trabajo en La piel que habito, de Almodóvar. Aitana Sánchez Gijón fue la encargada de entregar el premio a una sorprendida Soler, que desconocía que iba a recogerlo de manos de la actriz.
Zorionak Karmele!
**Karmele:** “Es emocionante recibir el premio Zinemira y es un regalo hacerlo de manos de Aitana; no me lo esperaba para nada. Este festival me ha visto crecer profesionalmente, y he pasado grandes momentos en él, como este que estoy viviendo ahora”, ha dicho emocionada. “Subo al escenario con pudor y orgullosa, y quiero compartir el premio con todos los técnicos del cine. Además, soy la primera mujer que lo recibe, y espero ver a muchas más subir a recogerlo a partir de ahora. Gora euskal zinema!”, “este premio va por ti, ama”.

**PREMIO AL MEJOR GUIÓN**
Los guionistas Asier Altuna y Telmo Esnal recogieron el premio de la mano de Joanes Urkixo, presidente de la Asociación de Guionistas Vascos, en la Gala del Cine Vasco que se celebró en el Teatro Victoria Eugenia. “Por su ejemplar uso de la palabra y el silencio, para construir un retrato profundo y poliédrico del choque entre el pasado ancestral propio del entorno rural vasco, y un futuro inminente que aún está por construir, otorgamos el premio al mejor guión vasco a la película Amama, escrito por Asier Altuna y Telmo Esnal”. Zorionak!

**PREMIO IRIZAR AL CINE VASCO**
Un jurado formado por Dolores Meijomin, Maria Elorza y Jose Mari Goenaga otorga el Premio Irizar al Cine Vasco a la mejor película vasca presentada en estreno mundial en cualquier sección del Festival.
Amama de Asier Altuna Iza ha sido la premiada. Zorionak!
Mención especial a la actriz Irene Escolar por su trabajo en Un Otoño sin Berlín de Lara Izagirre.

**OTRAS PELICULAS DE LA SECCION ZINEMIRA QUE SE HAN PROYECTADO EN EL ZINEMALDIA**
- Dristrict Zero de Jorge Fernandez Mayoral, Pablo Tosco y Pablo Iraburu Allegue
- Gure sor lekuaren bila de Josu Martinez
- Jai alai blues de Gorka Bilbao Ramos
- Jazzaldia50 de Carlos Rodriguez
- Por eso de Sam Orti Marti
- Sanctuaire de Olivier Masset Depasse
- Wals (Harresiak) de Pablo Iraburu Allegue y Migueltxo Molina

Felicidades a todos/as por contribuir a que el Cine Vasco este más vivo que nunca. Felicidades también al grupo de Kimuak por apostar por el futuro. Gora Euskal Zinea!
**EAB**

# DANTZERTI

## LA ESCUELA SUPERIOR DE ARTE DRAMÁTICO Y DANZA DE EUSKADI YA ES UNA REALIDAD

El curso 2015-2016 ha arrancado en Dantzerti con 25 alumnos y alumnas que han entrado a formar la primera promoción de la Escuela Superior de Arte Dramático y Danza. De entre ellos y ellas, 15 estudian en la modalidad de Arte Dramático, y los 10 restantes en la de Danza. Un equipo docente formado por 10 profesores y profesoras se ocupa ya de su formación, bajo la dirección de Ekaitz González Urretxu.

La plataforma Eszenika formada por profesionales del sector ha trabajado incansablemente por esta reivindicación, aportando ideas a la administración, y en el último momento, cuando llegaba la hora de tomar las decisiones importantes, se les ha ninguneado.

No estamos de acuerdo con las formas y rapidez con la que se ha realizado la selección del profesorado, quedando fuera grandes profesionales de gran trayectoria de este país. Esto no quita para que depositemos toda nuestra confianza en el equipo dirigido por Ekaitz González Urretxu. Larga vida a Dantzerti.

**EAB**

berria

**LEHEN DANTZA, GAIZKI ETA PRESAKA**

Nagore Ares Amaya 2015-09-13

Gas pedala zapaldu du hilabeteotan Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, eta sektorearen urteetako aldarrikapenak, lana eta esperientzia alderatu ditu Dantzerti Arte Eszenikoetako Goi Eskola martxan jartzeko. «Presaka» eta «gaizki» aritu dira, eta etxea teilatutik hasi dute, dantzako eta arte dramatikoetako profesional ugariren arabera. Hala, dantzariek eta aktoreek sentimendu nahasiak dituzte: pozik daude eskola zabalduko dutelako —hilaren 21ean—, baina penatuta daude gauzak egiteko moduarekin. Hala ere, baikorrak dira, eta espero dute eskola hobetzeko pausoak ematea aurrera begira. Bilboko Juan Krisostomo Arriaga kontserbatorioan egongo da Dantzerti.

Hainbat dira profesionalen kezkak: irakasleak hautatzeko ezarritako irizpideak eta epeak, irakasleak hautatu aurretik ikasleak aukeratu izana, euskarak eskolan izango duen tokia, eskola beraren kokalekua, eta ikasketa planen gabezia —eta, bereziki, euskal dantza tradizionalek tarterik ez izatea dantzako ikasketa planen zirriborroan—. Gaiaren inguruko informazio falta ere kritikatu dute sektoreko profesionalek. Izan ere, eskola zabaltzear dela, ezer gutxi ezagutzen da behin betiko ikasketa planez, zuzendaritzaz, irakasleez eta eskolak izango duen estiloaz. Hedabideetan agertzen dena soilik dakite haietako askok, nahiz eta urte ugari eman dituzten eskolaren alde borrokan eta lanean. BERRIA ahalegindu da Dantzertiren zuzendaria izango denarekin harremanetan jartzen, baina astean oraindik erabaki gabe zegoen zein izango den.

Duela hamar urte inguru sortu zen Eszenikaren Aldeko Plataforma; sektoreko elkarte eta norbanako ugari batu zituen, Euskal Herrian arte eszenikoetako goi eskola bat sortzeko beharra aldarrikatzeko. Urte ugari eman zituzten borrokan, eta gobernuekin elkarlanean aritu ziren eskola sortzeko. «Politikariek interesik jarri ez dutenean, plataforma izan da proiektua agendan mantendu duena, eta, gainera, proiektuari forma eman diona erakundeetan kezka handirik ez zegoenean», nabarmendu du Oier Araolaza dantzari eta kazetariak.

Aurten desegin da plataforma, eskola martxan jartzeko azken urratsetan, Jaurlaritzak urteetan plataformarekin izandako elkarlana hautsi eta gero. «Esan dezakegu adiskidetasun harremana izan dugula gobernu guztiekin, harreman heldua eta errekonozimenduzkoa», azaldu du Alicia Gomez dantzari eta plataformako kideak. «Hala ere, prozesua oso geldoa izan da, eta, gehienetan, denborak ez du jokatu ikasketak ezartzearen alde. Prestasuna ona izan da, baina tempoak ez dira eskutik etorri, eta oso zaila izan da horiek borondatearekin eta ekintzekin uztartzea. Azken gobernuarekin ezarritako elkarrizketa positiboa izan zen, baina otsailean eten zen, eta erabaki zuten beraiek bakarrik hartzea geratzen ziren erabaki guztiak».

**Autokritika beharra**

Gomezek nabarmendu duenez, sektoreko profesionalei «mingarria» gertatu zaie Eusko Jaurlaritzaren erabakia, eta uste du saihestu daitekeela etorkizunean «laido gehiagorik» egotea. Horretarako, beharrezkoa ikusten du alde bien autokritika, baina uste du badela aurrerantzean bidea elkarrekin egiterik, eta, beharrezkotzat jotzen du hala egitea.

Logikazko ordena alde batera utzi, eta zuzendaritza eta irakasleak hautatu aurretik ikasleak hautatzeko prozesua abiatu zuen Eusko Jaurlaritzak maiatzean. «Egokiagoa litzateke irakasleak hautatzea lehendabizi; irakasleen eta zuzendaritzaren artean adostea eskolaren estiloa, eta ikasleak horren arabera hautatzea». Arte Dramatikoko ikasleak hautatu zituen Ramon Barea aktoreak, beste

epaimahaikide batzuekin batera. «Ez naiz damu hautaketa irizpideekin, baina moduak tristatzen nau: presek eta zehaztasunik ezak». Nabarmendu duenez, Eusko Jaurlaritzako kultur teknikari batzuek deitu zioten, «oso denbora gutxirekin», eta galdetu zioten ea epaimahaiaren parte izan nahi zuen.
Ekainean, ikasleak hautatzeko probak egin ondoren deitu zituzten irakasle izan nahi zutenak beren curriculumak aurkeztera. «Presaka» egin zuten deialdia, eta astebeteko epea izan zuten eskaera eta dokumentazioa aurkezteko. Hala ere, lagun ugarik aurkeztu zuten eskaera. Aurkeztutakoen curriculumak baino ez dituzte baloratu irakasleak hautatzeko, eta ez diete inolako probarik egin, nahiz eta Eszenikaren Aldeko Plataformak askotan azpimarratu duen irakasleei probak egiteko beharra. Erabakiak ez du zentzurik, Araolazaren arabera. «Ez du bermatzen, ez alde batera, ez bestera, pertsona horren formazioaren kalitatea eta irakaslea izateko duen eskarmentua».
Gehiegizko akademikotasuna «arriskutsua» izan daitekeela ohartarazi du Bareak. Eusko Jaurlaritzak oso irizpide «estuak» ezarri ditu irakasleak hautatzerakoan, haren iritziz. Arte Dramatikoko eta Dantzako Goi Ikasketak eskatu dizkie. Hori kritikatu du Gomezek: «Ez dituzte kontuan hartu ibilbide luzea duten beste autonomia erkidegoetako eskoletako irizpideak. Hala, errekonozimendu handiko sektoreko profesional ugari kanpo geratu dira, ez dutelako eskatutako arte dramatikoko edo dantzako titulazio jakin bat, nahiz eta arlo horietako bestelako titulazioa eta esperientzia handia izan».
Irizpideen estutasunak ez du Euskal Herriko sektorearen egoera kontuan hartzen, Agurtzane Intxaurraga aktorearen ustez. «Hemen ez da izan titulazio hori eskaintzen duen eskolarik», nabarmendu du. Hori dela eta, aktore eta dantzari askok bestelako titulazioak dituzte, eta eskola ofizialetatik kanpo jaso dute prestakuntza. Euskal Herriko egoera kontuan ez hartzearekin batera, Eusko Jaurlaritzak ez du Espainiako legedia kontuan izan irakasleak hautatzeko irizpideak ezartzerakoan. Horren arabera, diziplina artistikoetan irakasle jardun nahi dutenek nahikoa dute gradudun, lizentziadun, ingeniari edo arkitekto titulua izatea, eta ez dute zertan eduki arte eszenikoetako edo dantzako goi mailako titulazio zehatzik. Aipatutako edozein goi titulu izatearekin batera, nahikoa dute beren esperientzia eta bestelako formazioa aurkeztuta.

### Eta euskal dantzak, zer?

Dantzako goi zikloaren ikasketa planen zirriborroan ez da inon aipatzen euskal dantza tradizionala. Irakasleen esku izango da, esaterako, bolero eskola eta flamenkoa ikasteko aukera izatea ikasleek, baina, eskola Euskal Herrian dagoen arren, baliteke euskal dantzaren tradizioa ezagutzeko paradarik ez izatea. «Mingarritzat» eta «iraingarritzat» hartu dute hori dantzari ugarik. «Euskal dantza tradizionalak eduki zezakeen presentzia modu askotan; zentzua du espezialitate legez, eta izan beharko luke. Neurri batean, uler dezaket dantza garaikideen aldeko hautua egin dutela, eta nonbaitetik hasi behar da, baina, bestalde, tristea da ikasgai moduan ez azaltzea edozein estilotako interpreteentzat, ezta dantza garaikidekoentzat ere», nabarmendu du Jon Maia dantzariak.
«Bilbon zabalduko da eskola bat, Euskal Herrian, berdin-berdin egon zitekeena munduko beste edozein lekutan», azpimarratu du Oier Araolazak. «Munduan, mila eskola ingurutan ikasi ahal dira dantza garaikidea eta klasikoa; euskal dantza tradizionala, ordea, ez dago inon ikasterik. Nonbait ikasteko aukera izan beharko balitz, argi dago Euskal Herrian izan behar lukeela».
Bat dator Sabin Bikandi Aiko taldeko musikaria. Haren ustez, euskal dantzek Dantzertin lekurik ez izateak «ez du ez buru eta ez hanka». «Sinestezina da, eta, adibide bat jartzearren, unibertsitatean ingelesez edo gaztelaniaz irakatsi bai baina euskaraz irakatsiko ez balitz bezala da hori. Euskararen normalizazio prozesuarekin alderatzen dut maiz euskal dantzaren eta musika tradizionalaren egoera. Garai batean, euskarazko eskolak ematen zituen gure amak, nahiz eta bera ez zen irakasle izateko ikasia. Orain, denok onartzen dugu euskara irakaslea izateko ikasi egin behar dela. Dantza gure amaren garaian dago oraindik, eta jende asko gabiltza lanean horren egoera normaltzeko eta unibertsitatera eramateko». Bikandiren ustez, euskal dantzari aitortza egin beharko lioke eskola berriak, eta dantza garaikidearen eta klasikoaren parean jarri: «Ez dugu zertan konplexurik izan; gurea goi mailakoa da, eta teknikoki oso aberatsa».

### Antzertiren hutsak

Atzera begiratzeko beharra nabarmendu dute Bareak eta Intxaurragak. Biek izan dute gogoan Antzerti, 1980ko hamarkadan Kultura Sailak sortutako arte dramatikoko zerbitzua. «Antzertirekin ere presaka egin ziren gauzak, eta zentroak oso gutxi iraun zuen, zehaztasunik gabeko administrazioagatik, eta gauzak ondo lotu ez zirelako», nabarmendu du Bareak. 1993an itxi zuten eskola, eta profesionalentzako aholku zentro bilakatu zen. Antzertirekin gertatutakoa ez errepikatzeko, historiari begiratzeko eskatu dio Bareak Hezkuntza Sailari.
Hobetzeko asko dagoen arren, euskal aktore eta dantzariak bat datoz: eskola sortu izana «berri ona eta beharrezkoa» da. Hala uste du Agurtzane Intxaurragak. «Kosta egin da, baina azkenean badaukagu eskola bat; eta berton arituko diren profesionalei konfiantza osoa ematen diet. Eskola sortu da, eta, gerora, hobetu egin ahal izango da, eta hori oso garrantzitsua da profesionalentzat, profesioak duintasuna irabazten duelako».

# DANTZERTIKO **IKASLE BATEN** IRITZIA

Uste baino hobeto. Pertsonalki, oso arduratuta geratu nintzen ekaineko frogetan ikusitakoarekin. Alde batetik, administrazio tramiteetan eta sarbide frogan zehar euskararen presentzia oso txikia eta eskasa izan zen. Bestalde, oso agerian geratu zen Dantzertiko proiektuaren atzean hutsunea besterik ez zegoela. Inork ez zuen erantzunik goi mailako beste hezkuntza zentrotan ohikoak diren tramite administratiboen gainean egindako galderei (bekak, datak, ordutegiak, baldintzak...), eta are gutxiago zalantza akademikoen aurrean. "Ikasketa programa" deitu zioten ikasgai zerrenda batean matrikulatu ginen lau urtetarako eta desinformazioa eta komunikazio eza izan ziren nagusi, irailak 21, aurkezpen eguna iritsi zen arte.

Badakit dena egiteke dagoela, baina hilabete hauetan Dantzerti instituzioek indarrez, azkar eta hezkuntza publikoari zein Euskal Herriko eta euskal antzerkigintzari ekarpena egingo dion inongo proposamen zehatzik gabeko martxan jarri nahi zuten marka bat iruditu zait. Horretarako arrazoiak ez ditut argi, baina hori izan da nire sentsazioa, eta aurreko eguneko luxuzko inaugurazio ekitaldiko korbata-giro eta diskurtso potoloek konfirmatu zidaten denbora luzez sentitutakoa. Zorionez, badira bi aste pasa klaseetan hasi ginela eta hasierako ezjakintasuna eta konfiantza eza leundu du kurtsoaren hasiera onak. Egun hauetan irakasleek ilusioa eta borondatea transmititu digute, jarrera irekia dute eta aurkeztu dizkiguten urte osorako ikasgaien programak oso interesgarriak eta landuak iruditu zaizkit bai edukien aldetik, baina baita ikuspuntu pedagogiko batetik erabilitako metodologiengatik. Hausnartzera, parte hartzera, norberaren eta besteen lanari garrantzia ematera eta batez ere, esperimentatzera bultzatzen gaituzte klaseetan, eta hori oso positiboa da.

Gainera, taldean oso giro polita daukagu eta oraingoz gustura gabiltza lanean eta pixkana bagoaz elkar ezagutzen.

Beraz, esango nuke instituzioak kalitatezko eta perspektibadun hezkuntza proiektu bat martxan jartzeko gai izan ez diren arren, irakasleen motibazio eta lan txukunari eta taldearen giro onari esker hasiera polita eta intentsua eman diogula ikasturteari. Ia ba hemendik aurrera zer datorren.

**Maite Aizpuru**
Dantzertiko ikaslea

# LAN AKORDIOA
## BETETZEARI BURUZ



Gaurkoan Euskal Autonomi Erkidegoan ekoizle eta aktoreen artean lan harremanak arautzeko dugun Lan Akordioari buruzko gogoeta batzuk partekatu nahiko nituzke zuekin.
Hamar urte pasa dira Lan Akordio hau sinatu genuenetik – IBAIA, EPE-APV, enpresa ekoizlee moduan eta EABren artean. Akordio honen bidez Telebista Estatalak eta ETB eta bertako telebisten artean dauden alde nabarmenei aurre egitea zen helburu nagusia, sinatzaileen artean zituzten aukeren einean
Garai hartatik hasita urtero urtero berresten joan gara akordio hau, indarrean dagoela sendotasunez sinisten dugulako, bai enpresek eta bai guk.
Aurrekari honekin jarraian esan beharrean gaude, akordioan sinisten dugunez, gogor babestu eta betearazi behar dugula guztiok: sinatzaileek, enpresek, aktoreek eta Telebistak, orain arte kanpoko ekoizpen eskatzaile bakarra ETB delarik.

**Bakoitzak bere einean, noski:**

- Aktoreek bere lan harremaneko baldintzen duintasunari eutsiz. Eta ez soldata baldintzak bakarrik. Beste baldintza batzuk ez betetzeak, gabezi edo deficit ekonomikoak sortu arazten dituelako ere, adibidez behar ez den kategorian sailkatzeak soldataren murrizketa nabarmena dakar, eguneko lanaldia zortzi orduz gainetik osoko kontaketa egin ondoren egiteak ere... etabar.
- Enpresek, baldintza duinak eta Euskal Autonomi Erkidegoko Akordioa gutxienekoz betez alde batetik, eta ETBren aurrean,beraien arteko kontratoak negoziatzerakoan Akordioa, baliabide negoziaezin eta gaindiezinekoa erabili eta aurkeztuz, bestetik.
- Azkenik ETBk, Akordioen baldintzak ezagutzeaz gain, ekoizleei ezarritako mugak, Akordioa betegarria egiten dituztenak izatea. Hauek ere beraien Konbenioaren aplikazioa beraien soldata eta lan baldintzetan eskatuko duten bezela, normala den moduan.

Azken hilabete hauetan ekoizpen berrietan parte hartu duzuen aktoreak, berehala jabetuko zinaten zergatik orain hau idazten EABtik: Geroz eta gehiago estutu, geroz eta gehiago esandako baldintzetatik, baldintza duinetatik urrun dauden kontratoak jasaten aktoreak, enpresak horrelakoak eskeiniz gehiagora iristen ez omen direlako eta azkenean, ETBk du bere gain ardura egiten ari diren fikziozko ekoizpenetan behar den moduan gastatzen ari direla esleitutako dirua egiaztatzea baina diru hau nahikoa dela kontratu duinak egin ahal izateko ere bere ardura izan behar du.
Guzti honen aurrean, EABtik animatzen zaituztegu, ekoizpen berri baten aurrean, bertan zaudeten aktoreak, bakarkako jarrereetatik urrundu eta talde jarrerak lantzen eta bultzatzen saiatzeko. Horretan hemen izango gaituzue.



Desde estas líneas quisiéramos compartir con vosotros/as algunas reflexiones acerca del Acuerdo Colectivo para el Audiovisual que tenemos firmado con los representantes de las empresas y productoras y sobre cómo se cumple.
Han pasado 10 años desde aquella firma entre EAB por un lado, y por IBAIA y EPE-APV, por otro. Lo que se pretendía por todos era, dentro de nuestras humildes posibilidades, paliar las diferencias que había y hay entre las Tvs estatales y la autonómica ETB o las locales que había y establecer un marco propio que facilitara la contratación.
Todos los años hemos ido renovando, revalidando este Acuerdo porque creemos firmemente que el mismo sigue en vigor. Las empresas, creemos que también, porque sus representantes lo suscriben.
Con estos antecedentes, debemos de decir que como creemos en el Acuerdo, debemos de cumplir y hacerlo cumplir: representantes de empresas y artistas, productoras y actores y actrices, así como la Televisión autonómica y las locales, siendo hasta ahora únicamente ETB, la que contrata producción de ficción.

**Cada uno, dentro de sus posibilidades:**

• Los artistas, defendiendo la dignidad de su trabajo y de sus condiciones y no sólo las condiciones salariales sino que también otras condiciones que mal establecidas suponen deficits económicos o de otro tipo: nos podemos referir a que se nos adjudique en contrato una categoría inferior al que por nuestro trabajo nos corresponde, o a jornadas de trabajo que superan en cómputo global a la jornada máxima establecida de 8 horas... etc.
• Las productoras y empresas ofreciendo a los artistas contratos dignos que respeten como mínimo el Acuerdo Audiovisual referido y con la ETB, utilizando el Acuerdo como instrumento innegociable y de obligado cumplimiento.
• Y la ETB, con conocimiento de los términos del Acuerdo, estableciendo los límites y términos de la negociación de manera que el Acuerdo sea referencia de cumplimiento, exactamente igual que ellos piden y reclaman para sí el cumplimiento en sus contratos de las condiciones fijadas en su propio Convenio.

Los y las que en los últimos meses habéis estado o empezáis en nuevas producciones os habréis dado cuenta de porqué estamos escribiéndoos ésto ahora desde EAB: Los artistas cada vez tenemos que soportar contratos más ajustados, más ceñidos y con más dudoso cumplimiento del Acuerdo; las empresas, ofreciendo estos contratos, haciendo referencia a la imposibilidad de mejorar las condiciones y, la ETB en última instancia, que es quien oferta las condiciones, quien tiene que velar porque se emplee debidamente el presupuesto adjudicado, debe ser quien de la misma manera garantice que con esos recursos presupuestarios alcanzará para dar cumplimiento a todos los compromisos, incluido el del cumplimiento del Acuerdo entre empresas y artistas.
A todos los artistas os animamos a que, si vais a participar en una producción, evitéis actitudes individuales y contéis con el colectivo para aseguraros una mejor negociación. En ese trabajo, a EAB nos tendréis ahí.

**Gurutze Baztarrika**
Abogada del Sindicato

# 20 AÑOS DEL **TALLER DE ARTES ESCÉNICAS** DE DONOSTIA

## 20 AÑOS FORMANDO ACTRICES Y ACTORES

En 1995, tres años después de que el proyecto Antzerti (Servicio de Arte Dramático y Escuela Teatral del Gobierno Vasco) cerrara sus puertas, nace, como alternativa única para todos aquellos que quisieran iniciarse y formarse en la profesión de actor o actriz, el TAE, Taller de Artes Escénicas de Donostia.

La idea nacía de un grupo de actores, guionistas y productores vascos que decidieron reunirse para reflexionar sobre el futuro de la profesión actoral en el País Vasco, abocada a su desaparición por la falta de una escuela reglada para la formación de jóvenes actores. De esas conversaciones surgió el firme propósito de paliar esa necesidad formativa, creando un lugar de encuentro para actores y aspirantes a actores. En aquella histórica mesa de trabajo se habían encontrado Teresa Calo, Fernando Bernués, Carlos Zabala, Kike Díaz de Rada, Agustín Arrazola, Mireia Gabilondo, Maribel Ripoll, José Antonio Vitoria, Garbi Losada y Eneko Olasagasti, luego socios fundadores del Taller.

El éxito del proyecto inicial, que comenzó siendo un solo curso experimental de ocho horas de duración, llevó pronto al equipo de socios y docentes a apostar por un programa más ambicioso, que se fue ampliando en horario y consolidando materias, hasta asumir tres cursos completos, que actualmente integran una media de dieciséis horas de clase semanales para cada uno de ellos, de octubre a mayo.

Interpretación, Técnica vocal, Cuerpo y movimiento escénico, Historia y teoría del teatro universal y del teatro vasco, Entonación del euskara, Presencia escénica, Análisis de textos dramáticos... Asignaturas troncales a las que se han sido sumando monográficos de un amplio abanico, desde la Commedia dell'Arte, el Clown y las Técnicas de Iluminación hasta la Producción Teatral. Un Taller de Artes Escénicas a la altura de una Escuela de Arte Dramático, superando todo tipo de obstáculos, infraestructurales, personales, económicos y técnicos.

La nómina de profesores ha contado con nombres relevantes en el teatro profesional con una trayectoria destacada como actores, como técnicos o como investigadores. A los arriba citados podríamos añadir los nombres de Edi Naudó, Arantxa Ezquerra, Lierni Fresnedo, Olatz Beobide, Iñake Irastorza, Ana Pérez, Julia Marín, Bettina Aragon, Kepa Errasti, Idoia Sagarzazu, Amaia Lizarralde, Karmen Gil Fombellida, Belén Cruz, Carlos Acosta, Jasone Alba, Patxi Barko, Patxi Perez, Espe lopez, Xabi Ormazabal, Egoitz Lasa, Juan Carlos Garaizabal, entre otros.

Dos décadas en las que los alumnos matriculados han contactado con los métodos referentes en la historia de la interpretación, desde Stanislavski a Eugenio Barba. Con un resultado de veinte montajes fin de estudios, con obras de autores clásicos, de dramaturgos




contemporáneos y del propio colectivo, en castellano y en euskara. Ahí quedan títulos como No se lo digas a nadie, el primero de ellos, representado en el Museo San Telmo, con un texto original del Taller; Cada loca con su temo, también del TAE; El día del fin del mundo, Commedia dell'Arte con guión de Agus Arrazola; Morir… (o no morir), de Sergi Belbel; Soy fea, del mismo autor y Jordi Sánchez; Gestos para nada, adaptación de Teresa Calo y Belén Cruz a partir de un texto de José Sanchís Sinisterra; De Kameron, de Boccaccio en versión de Héctor Quintero; Sueño de una noche de verano, de William Shakespeare; Nasdrovia Chejov, de Alberto Iglesias a partir de los cuentos de Chejov; Notas de cocina, de Rodrigo García; El año de Ricardo, de Angélica Liddell; Esperando al zurdo, de Clifford Odets, etc.
Desde su inauguración el TAE ha conocido varias sedes. Los espacios en los que se ha ubicado la Escuela han sido tan dispares como inolvidables: Sarobe, en Urnieta, la Casa del Guarda-Guardetxe en Urgull, el Mercado de Frutas de Duque de Mandas, Arteleku en Martutene, el Convento de las Agustinas de Errenteria, la Casa de Cultura Niessen de la misma localidad y por fin y definitivamente la Kultur Etxea de Egia o Jareño, con sus tres aulas adaptadas y el magnífico escenario de Gazteszena. En cada uno de los lugares por los que ha pasado, el TAE ha ofrecido la posibilidad de acceder a una preparación técnica especializada de una calidad única en Gipuzkoa. En su recorrido a lo largo de dos décadas ha aportado a la ciudad de Donostia y a todo Donostialdea cultura activa, cultura real.
Escuela, taller, lugar de encuentro para el enamorado o el iniciado en las artes escénicas, el TAE ha reunido en sus aulas a más de doscientos alumnos, ha sido cantera de referencia para grupos de teatro locales, aficionados y profesionales.
En este año 2015, el Taller de Artes Escénicas de Donostia es conocido y reconocido en la profesión teatral y en los ambientes culturales de la ciudad que lo ha acogido. Aquellos que se han acercado a sus aulas para satisfacer bien su curiosidad o bien una vocación innata en sus vidas, han disfrutado de una experiencia en la que han compartido vida y experiencias con personas de distintas edades y ámbitos sociales, ampliando su cultura, su espíritu crítico y reforzando su capacidad de relación, de comunicación.
20 años de andadura en la enseñanza teatral, 20 años investigando, enseñando y aprendiendo, haciendo arte y educando en el hermoso y complejo mundo del teatro. 20 años del TAE. 20 años es mucho.
**Mari Carmen Gil**







Fotografia **Asier Batiz**

# DEVELOP
# FILM MARKET

El día 2 de octubre tuvo lugar en Bilbao el primer Develop Film Market, para los que no sepan de qué se trata (la mayoría, de momento) decirles que es un encuentro entre profesionales vascos del sector audiovisual, tanto técnicos, como productores, actores, distribuidores, estudiantes,... con el objetivo de poner en común diferentes opiniones en torno a nuestra ¿Industria?

Pues ese fue el eje central de los diferentes actos que tuvieron lugar a lo largo del día y que terminó con una fiesta en un lugar cercano... pero esa es otra historia.

Algunos se preguntaban si existía una industria de cine vasco como tal a lo que otros respondían que existe y que cada vez es más fuerte. Concepto con el que escribe estas líneas está completamente de acuerdo. Últimamente no paramos de tener alegrías en lo que al cine vasco se refiere. El último sin duda el hito conseguido por Loreak, lo mejor que nos podía pasar para dar visibilidad y fomentar nuestra cultura fuera de nuestras fronteras. Pero no olvidemos que estos últimos años nuestro cine no ha dejado de darnos alegrías con películas como Urte berri on amona!, La máquina de pintar nubes, A escondidas o Ander, por citar sólo algunos casos.

Durante el día hubo diferentes ponentes muy relevantes dentro del panorama vasco que abarcaban los diferentes ámbitos del sector: Mikel Rueda, Borja Crespo, Izaskun Arandia, Eduardo Carneros, Javier Arriaga, Pedro Rivero, etc... Y todos mostraban optimismo e ideas ante esta época de crisis pero a la vez catártica y renovadora que estamos viviendo.

Se habló de un término muy de moda ahora, el famoso "Capitalizar" que algunos apuntaban es un sinónimo de trabajar gratis. Otros hablaron del arduo trabajo de la distribución, algunos de la importancia de hacer cine en euskera como seña de identidad, de la situación de los técnicos que tienen que vivir del RGI, del peligro de convertir esta profesión en un hobby y tener que vivir de otros trabajos e incluso en los corrillos que se formaban tras las ponencias se hablaba de la posibilidad remota de crear una Academia de Cine Vasco.

Lo que está claro es que dejando ideologías, estilos, modas y competencias de lado, todo el mundo abogaba por dar soluciones y unirse para colocar nuestro cine en el lugar que se merece por la calidad de sus profesionales y de sus historias, y si es en euskera, pues mejor. El euskera es nuestro tesoro y debemos cuidarlo, si nosotros no hacemos cultura en nuestro idioma nadie lo va a hacer.

En el acto también hubo representación de EAB, Miriam Martín, Mikel Martín y Mikel Losada entre otros. Fue un encuentro muy interesante y se quiere establecer de manera trimestral para luchar por un bien común que nos beneficia a todos: dar músculo a nuestra industria. Es momento de estar unidos, de hacer cine todos juntos y de pelear porque cada vez se haga más y todos podamos vivir de esto creando arte y llevando el nombre de Euskal Herria por el mundo.

Eso quedó claro, hacía allí tenemos que remar, hacia crear una industria cinematográfica estable y competitiva a nivel mundial, todos creemos que es factible y real. Depende de nosotros, de todos. Incluyendo por supuesto a las instituciones. Es nuestro momento. De demostrar que valemos.

Gora Euskal Zinema! Gaur eta Beti!

**Lander Otaola**

SINDIKATUKO TXARTELAREN BIDEZ JASO AHALKO DITUZUN SERBITZUEN DESKONTUAK

# SERVICIOS EN LOS QUE PUEDES OBTENER DESCUENTO CON EL CARNET DE AFILIACION

## GIPUZKOA

| | | |
|---|---|---|
| Videos Zumeta | 15% | www.zumetavideo.com |
| Videos Zazpiterdi | 15% | http://zazpiterdi.com/es |
| Maquillaje y peluquería Ainhoa Eskizabel | 15% | ainhoexki@hotmail.com |
| Tai Chi Chuan Eeskola | 15% | www.taichichuaneskola.com |
| Fotógrafo Mikel Martínez Etxezarreta | 15% | www.mikelmartinez.net |

## BIZKAIA

| | | |
|---|---|---|
| Videos Yolanda López de Heredia | 15% | yolandalzheredia@gmail.com |
| Glamuforia Peluquería | 15% | es-es.facebook.com/glamuforia |
| Maquillaje profesional Alicia Suárez | 15% | www.aliciasuarez.net |
| Yorick Librería de Artes Escénicas | 5-15% | www.libreriayorick.com/teatro/ |

## ANTZOKIKO DESKONTUAK

| | | |
|---|---|---|
| Arriaga Antzokia | 25% | www.teatroarriaga.com |
| Alegria Dulantzi | 0% Precios populares | www.alegriadulantzi.com |
| San Agustin Aretoa (Durango) | 25% | www.durango-udala.net/sanagustin |
| Lobiano Kulturgunea (Ermua) | 25% | www.ermua.es |
| Zornotza Aretoa | 25% | www.zornotzaaretoa.net |
| Oreretako Kulturgunea | 10% | www.errenteria.net |
| Barakaldo | 50% | www.teatrobarakaldo.com |
| Elorrio | 50% | www.arriolaka.eus/es |
| Donostiako Antzokiak | 10% | www.donostiakultura.com |
| Gasteizko Antzokiak | 20% | www.principalantzokia.org |
| Zumaia | 50% | www.zumaia.eus/es |

DIRUZ LAGUNDUTAKO BERRIPAPERA

KOLABORATZAILEA

Gipuzkoako Foru Aldundiak
Diputación Foral de Gipuzkoa